

KANALAK

Gure panpinak ahalik eta arrakasta gehien eta pertsona gehienak ezagutzea gustatuko litzaiuke, horretarako ezinbesteko izango da produktuari publizitate on bat egitea eta baita toki desberdinetan saltzea. Era honetara jende gehiagorengana iristeko aukera edukiko dugu gure panpinak ezagunak bihurtzeko eta gustukoena bihurtzeko umeen artean.

Gure produktua internet munduan ezagutzera emateko, webgune bat sortuko dugu produktuaren informazio guztiarekin: nola egiten den gure produktua, nola sortu zen ideia hau, panpinen argazki bat... gure webgunean informazioa egoteaz gain produktua erosteko ere aukera egongo da gure bezeroek nahiago baldin badute panpinak beraien etxeetara iristea beraien dendara joan beharrean. Beraien dudak, kezak, kezak... jasotzeko bertan korreo elektronikoa bat egongo da beraien iritzi guztiak plazaratzeko. Hala ere korreoz ez baldin badute nahi idatzi, telefono zenbaki bat egongo da webgunean gurekin zuzenean harremanetan jartzeko eta honela guk bezeroari nahi duena azaldu edo argituko diogu.

Panpinak gure webgunean saltzeaz gain, Toys R' Us dendak ere salduko ditu. Jostailu denda honetan adostuko dugu non kokatuta egongo diren gure panpinak. Gure ustez ez litzateke egon behar pasillorik mutilen eta nesken jostailuekin, baina hori oraindik aldaezina denez, gure panpinak bai mutil eta bai nesken apaletan kokaturik egongo dira. Jostailu denda honek asko lagunduko digu gure produktua merkatuan zabaltzen, izan ere Toys R' us oso denda famatua da eta denda ugari ditu herrialdean zehar. Honela nahi duenak gure panpina erosi baino lehen ikusi fisikoki, joan daiteke denda honetara gure produktua eskuratzea.

Baita ere oso ideia ona iruditzen zaigu sare sozialak erabiltzea gure produktua ezagutzera emateko. Webguneaz gain, sare sozialetan (instagram, tiktok, facebook...) gure kontu propioa irekiko dugu. Bertan, gure panpinen argazkiak igoko ditugu denak ikus dezaten nolakoak diren eta baita gure iritzi, slogan... ere argitaratuko ditugu gure kontuan. Toys R' us-ek ere bere sare sozialetan publizitatea egingo gaitu.

